

# 2017 URTEA

2018ko aurrekontuak



**BILERA MOTA:** AUZOTAKO BILERA KARRIKA

**ZENBATGARREN SAIOA : 5**

DATA:	HASIERA ORDUA:	BUKAERA ORDUA:
2016-11-23	19:35	20:50

**BILDUTAKOAK:**

Udal ordezkariak: Jexux Leonet, Enekoitz Markos, Jon del Olmo eta Josune Cousillas

Kopurua: 24

16-30 urte: 2	Emakumeak: 7	Euskaraz: 24
30-50 urte: 11	Gizonezkoak: 17	Elebitan:
50-65 urte: 9		
>65 urte: 2		

**AKTALARIA:** Enekoitz Markos

**Gai zerrenda:**

**GAIA/JUSTIFIKAZIOA**

**ERABAKIA**

1	Aurkezpena	Bileraren egitura aurkeztu da. Zinegotzi taldea aurkeztu da.
2	Aurrekontuak 2018	2018ko aurrekontuen zirriborroa aurkeztu da: diru sarreraren aurreikuspena, gastuen aurreikuspena.
3	2017ko balorazioa	2017ko inbertsioen balorazio orokorra aurkeztu da.
4	2018ko inbertsioak	2016ko eta 2017ko bileretan jasotako eskaeren ondoren eta urtean zehar ikusi diren beharren ondoren, 2018rako herri mailan inbertsio egin beharreko handiak aurkeztu dira.
5	Karrikako lanak	<p>Bizilagun batzuk diote Karrikako sarreran dagoen espaloia horrela egin beharren, espaloia kendu eta oinezkoen markak jartzea egokiagoa dela.</p> <p>Larraldapako zuhaitzak kimatzea errezago eskatu da hobeto ikusteko.</p> <p>Guraso talde batek idatzi bat aurkeztu du sinadurekin haurrentzat egoteko leku bat nahi dutela auzoan(parke bat adibidez)</p> <p>Talde horretako kide batek dagoen plazako parkea egokia ez dela eta arriskutsua dela aipatu du. Jexuxek erantzun du plazako parkea ez dela egokia eta agian kooperatibako etxeen atzekaldean dagoen parkea osatu eta han gune bat sortzea</p>

		<p>aukera bat litzatekeela.</p> <p>Beste auzotar batek parke horretarako edo beste baterako aterpe bat eskatzen du, auzoan ez dagoela bat aipatzen du. Jexuxek printzipioz dio hori ez dela erreza ikusten batez ere aurrekontu aldetik.</p> <p>Bizilagun batek aipatzen du epe luzerako ikuspegi batekin egitea, zatika, auzolanean edo beste alternatibak aztertzea. Jexuxek dio epe luzerako planteamendu batekin aztertu daitekela, baina epe motzera, 2018an ez dagoela aurrekonturik horretarako.</p> <p>Plazako parkeari buruzko proposamen ezberdinak aipatu dira, gaur egun dagoen bezala ez dagoela ongi, dagoen kotxeen mugimendua eta baita ere bertan biltzen den zakarra dela eta.</p> <p>Seinalazioa eskatu dute, kotxerik ez aparkatzeko autobusak buelta ematen duen tokian.</p> <p>Bizilagun gehienek diote parkea plazatik kendu beharko litzatekeela, bertan jende helduarentzat pare bat banku utzi eta parkea egokitu kooperatibaren atzeko eremuan. Jexuxek egoki ikusi du proposamen hori eta esan dio sinadurak aurkeztu dituen talde horretako partaideari eurek taldean balora dezatela proposamena eta udalarekin harremanetan egongo garela.</p> <p>Berrituko den bidean bankuren bat jartzea gomendatzen du bizilagun batek.</p> <p>Galdetu dute aldundiak Aingeruraino egin dituela asfaltatze lanak eta ea udalak baduen horren berri. Jexuxek erantzun du aurten aldundiak ez duela egingo, nahiz eta udalak eskaera egin dion aldundiari.</p> <p>Olaldeko zubitik (Pitusa alboan) Karrikaruntz ateratzean, ez dago egoki ez du bisibildaderik, seinaleak daude eta hor pankartak jartzen dira eta ez da ongi ikusten.</p> <p>Bekoerrotatik bidegorrira dagoen zubian sareren bat jartzea eskatzen dute bizilagunek, arriskutsua dagoelako errekararen erortzeko.</p> <p>Añakitik Pilota sorora doan herri bidea larrak hartua dago eta garbitzeko eskatzen du bizilagun batek.</p> <p>Karrikatik Oialekura dagoen herri bidean neguan batez ere orbela dagoenean arazoak daude, bi urtean behin garbiketa bat egitea eskatzen du. Jexux eta auzotarrak ados daude auzolanean herritarrak eta udalaren artean egin beharko</p>
--	--	---

		litzatekeela.																				
6	Balorazioa	<p>Balorazio orriak bete dira.</p> <table border="1"> <tbody> <tr> <td>Hilariak: bileran zehar emandako azalpenak</td> <td>8,8</td> </tr> <tr> <td>Hizlariak: ondo gidatu dute bilera</td> <td>8,8</td> </tr> <tr> <td>Bileran erabili den metodologia</td> <td>8</td> </tr> <tr> <td>Herritarren asistentzia: kopurua</td> <td>5,7</td> </tr> <tr> <td>Herritarren partehartzea</td> <td>7,1</td> </tr> <tr> <td>Saioa probetxugarria izan al da?</td> <td>8,5</td> </tr> <tr> <td>Egunaren egokitasuna</td> <td>7,7</td> </tr> <tr> <td>Orduaren egokitasuna</td> <td>8</td> </tr> <tr> <td>Lekuaren egokitasuna</td> <td>9,1</td> </tr> <tr> <td><b>Denera batz beste</b></td> <td><b>7,9</b></td> </tr> </tbody> </table>	Hilariak: bileran zehar emandako azalpenak	8,8	Hizlariak: ondo gidatu dute bilera	8,8	Bileran erabili den metodologia	8	Herritarren asistentzia: kopurua	5,7	Herritarren partehartzea	7,1	Saioa probetxugarria izan al da?	8,5	Egunaren egokitasuna	7,7	Orduaren egokitasuna	8	Lekuaren egokitasuna	9,1	<b>Denera batz beste</b>	<b>7,9</b>
Hilariak: bileran zehar emandako azalpenak	8,8																					
Hizlariak: ondo gidatu dute bilera	8,8																					
Bileran erabili den metodologia	8																					
Herritarren asistentzia: kopurua	5,7																					
Herritarren partehartzea	7,1																					
Saioa probetxugarria izan al da?	8,5																					
Egunaren egokitasuna	7,7																					
Orduaren egokitasuna	8																					
Lekuaren egokitasuna	9,1																					
<b>Denera batz beste</b>	<b>7,9</b>																					

Komunikazio bideak	%
Kartelak	6,7
Prentsa/irratia	6,7
Whatsappa	47
Ahoz aho	27
Udal aldizkaria	0
Internet	13